



Urko Apaolaza Avila

♦ ARGIAKO KAZETARIA



Katalunia “guziz leial ilezkorra”

ARTUR MAS Kataluniako lehen-dakariari “leialtasuna” eskatu dio Mariano Rajoy Espainiakoak. EAJren eta PSEren arteko itun fiskalean ere Patxi Lopezek “leialtasuna eman eta exijituko” duela azaldu du. Modan jarriko ote da berriz ere ditxosozko hitza?

Zenbatetan ez ote dugu irakurri “*muy noble y muy leal*” goiburua gure erakundeetan? Iztuetak “guziz leial ilezkorra” deskribatu zuen Gipuzkoa. Iraganean, erreinu eta leinuen garaietan, ohorea eta leialtasuna zegoen ezeren gainera, Erdi Aroko baladak dira lekuko.

Eta hara, aldeko arrazoirik gabe eta ondokoa konbentzitzeko argumentuen faltan, leialtasuna inbokatu du Mariano Rajoyk, basailu katalanek traizio egin ez diezaioeten. Ez diz-

kie Espainiaren bertuteak eta dohainak nabarmendu, ez die herri gisa duten eskubide subiranorako onartu. Ez, “leialtasuna” galdegin die, fededunak Jainkoari dion gisan: ...*leialitatez begir'e-
zozü fedia*, maiteminduek elkarri dioten moduan: ...*leial dük bik
amorina!*

Baina Generalitatak erantzun dio ez dela inuzentea izango.

Leialtasunaren deiadarrak huts egin da, Rajoyren aholkulari banintz, Masi beste gutun bat bidaltzea gomendatuko nioke, oraingoan hain bogan jarri den kutsu belikoz inspiratutako balada bat barnean dararamala. Eta horrela hasiko litza-teke Mariano zaldunaren eresia:

*Hartuko dot esku batean gezia
bestean zuzi iratxegia,
Erreko dot Katalunia guztia!* ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Rosi Lazkano



Aldaketa bolada

Hamalau urte zitula
neskame lanetan hasi
nesken jakin beharra zen
obeditzea lehenbizi
gau eta egun langile
diru gutxi irabazi
hala ere bizitzarako
nonbait, ondo zuten hezi.
Behar beharrezkoa zen
plantxan ta josten ikasi
ezertan ez zekiela
etsita zenean kasi...
Nobioa egin eta
indultoa irabazi!

Sei urtez nobioakin
eta elizaz ezkondu
estreinatu beharko zen
hainbeste zuena zaindu!
Ordura arteko beldurrak
nola bat-batean kendu?
Baina hogeita bat urtek
askotako ematen du!
Bikote idilikoa
nahiz pixkat behar zuzendu
ume bat, bi eta hiru
painala eta ukendu...
Etxekoandre izan arren
neskemetza ematen du!

Berrogei eta hamabost
urte kunplitu jada
nahiz sinisteko zaila den
da aldaketa bolada
beti hain lotsati eta
orain ezer ez da traba
ezagutzen zuten denak
harrituta ditu laga.
Nahiz ez izan senidea,
senarra edo alaba:
“Errikotxerako zita”
Ainhoaren* mezua da...
Bertsoak sentimentun bat
nahastu dio behar bada. ■

*Ainhoa Agirreazaldegi

Sorta osoa QRa erabiliz,
eta Gaitzerdi blogean.

